



IKUSMIRA

MUNDUAREN BEREZKO DISTIRA

Ezkutuan zeuden eta hala segitzen dute. Donostiak distira izan dezan edota Azkoienean arnasa, gehienok beste aldera begira gaudenean norbaitek trapua astintzen du, zikina garbitu. Eskolan norbaitek komunak garbitzen ditu haurren joan-etorrietan, anbulatorioan ere adi dago norbait, latexeko eskularruekin eta trapua eskuan. Eta etxean, berdin. Hainbeste ertz dituen krisi hone-tan ezinbesteko, oinarritzko, lehen mailako dira normalean ikusten ez ditugun hainbeste lanbi-de... Baina poesiak ez dauka lixiba usainik, heroiek ez dituzte latexeko eskularruak eta, segur aski, oinarritzko lanbide horietako askok ikusezi-nak izaten jarraituko dute gero ere. Garbitu be-rria-aren xaboi usain atsegina usainduko dugu, bai-na ez ditugu ezkutuko langileak ikusiko, gure munduak distira berezkoa duela sinistu nahi izan baikenuen behin. Amagoia Mujika Telleria



Jon URBE - Idoia ZABALETA | FOKU